

Zer da fotogrametria?

zer nola
ork



Erantzuna:

Jose Martínez Rubio

Valladolideko Unibertsitateko Irakaslea.
Topografoa

Kaixo, ni José Martínez naiz, topografoa naiz, eta Valladolideko Unibertsitatean lan egiten dut, arkeologia-ondare arkitektonikoa edo argazkien bidez jaso daiteken beste edozein ondare ukigarri dokumentatzen duen laborategi batean. Nire espezialitatea 3Dren bidez eta irudietan oinarrituz objektuak berreraikitzea da.

Hori da fotogrametriarekin lortzen dena, eta argazkietan ikusten ditugun objektuetatik informazio geometrikoa ateratzea ahalbidetzen duena. Eta horrek balio die arkeologoei beren azterlanetan objektua bera ordezkatu ahal izateko. Hemen, adibidez, momia bat ikusten ari gara, ikus ezazue zein errealismoz, zein hurbilketa-mailarekin, zein fidelitasunez azter dezakegun momia honen zati bakoitza eta gure eskuetan bagenu bezala ikertu. Oso interesgarria da jakitea ondareari eskainitako teknologien mundu berri hau guztia oso gauza bitxiez elikatu dela, esate baterako, bideojokoez, bideojokoen teknologiaz, ordenagailuen bidez zuek jolasteko egin den aurrerapen horretaz guztiaz, funtsezkoa eta behar-beharrezkoa izan da arkeologoek ere tresna aurreratuez gozatzeko aukera izan dezaten, eta halaxe dute orain. Nire topografo lana baliabide horiek guztiak, teknologia arloan hain prestatuta ez dauden arkeologoek eskura jartzea da. Eta, aldi berean, gauza bakoitza munduko leku oso zehatz batean jartzen laguntzen diet, hau da, objektuen posizio globalarekin lan egiten dugu, eta hori funtsezkoa da objektu horiek arkeologian duten esanahia ulertzeko.